Usurbilgo Udala

2024/06/25

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2024KO EKAINAREN 25EAN GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Iratxe Begiristain Otegi eta Xabat Beloki Segurola.

**Idazkaria:** Xabin Juaristi Arrieta.

Ez dira bertaratu: Ainhoa Arrozpide Landa eta Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

**1.- 2024KO EKAINAREN 11KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Batzarkideek 2024ko ekainaren 11ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- UDARREGI IKASTOLA IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAK AGERIALDE ERAIKINAREN BIGARREN SOLAIRUA BERRANTOLATZEKO EGINDAKO OBREI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2023OHAN0009).**

UDARREGI IKASTOLA, IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAK (F20083465), Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGED-2 (Agerialde) Sistema Orokorrean dagoen Agerialde eraikinaren bigarren solairua berrantolatu du. Obra amaierako ziurtagiria eta hondakinen kudeaketa txostena aurkeztearekin batera, lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – OBRETARAKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko apirilaren 25ean, zera erabaki zuen: UDARREGI IKASTOLA, IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAK (F20083465), Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGED-2 (Agerialde) Sistema Orokorrean dagoen Agerialde eraikinaren bigarren solairua berrantolatzeko obra baimena ematea.

| OBRAREN EZAUGARRIAK | |
|---|---|
| Exekuzio materialeko aurrekontua: | 165.550,88 € |
| **Obra amaierako ziurtagiria:** | **236.129,29 €** |
| Hondakinen Kudeaketarako Azterlana: | Aurrekontua: 629,15 € |
| | Fidantza (%120): 754,98 € |

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, UDARREGI IKASTOLA, IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAK (F20083465), obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, burututako obren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkeztu da.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2023ko urriaren 23an, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea eta zergen kitapena egitea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI***:* UDARREGI IKASTOLA, IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAK (F20083465)**,** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGED-2 (Agerialde) Sistema Orokorrean dagoen Agerialde eraikinaren bigarren solairua berrantolatzeko egindako obrei lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2023ko maiatzaren 23an ezarritako 754,98 €-tako fidantza (IE 25-2023) itzultzeko agintzea kontuhartzailetzari honako kontu zenbakian: ES31 3008 0259 1120 8479 6727 (UDARREGI IKASTOLA, IKE).

**HIRUGARRENA:** Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari, zergen kitapena egin dezan.

**3.- GRUPO INGEMAR SL ENPRESARI INGEMARREK HARRIA LANTZEKO ETA AKABERA EMATEKO ERABILTZEN ZITUEN INSTALAZIO ZAHARRAK ERAISTEKO UDAL BAIMENA EMATEA (2024OHAN0005).**

GRUPO INGEMAR, S.L. (IFK: B20859997) enpresak, Ingemarrek harria lantzeko eta akabera emateko erabiltzen zituen instalazio zaharrak osorik eraisteko udal baimena eskatu.

| OBRAREN EZAUGARRIAK | |
|---|---|
| Aurrekontua (PEM): | 112.650,17 € |
| Hondakinen Kudeaketarako Azterlana: | Aurrekontua: 10.242,42 € |
| | Fidantza (%120): 12.290,90 € |

KANTAURIKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOAREN EBAZPENA

Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak obrak baimenduz honako ebazpena eman du 2024ko maiatzaren 31ean:

A/20/03501
AO-G-2024-0172
NL/ap

**R E S O L U C I Ó N**

**Expediente de autorización de obras para el derribo de las antiguas insalaciones de la empresa en zona de policía de la magen derecha del río Oria, en la calle Arraneka del término municipal de Usurbil (Gipuzkoa)**
**SIA: 206499**
**PETICIONARIO: Ingemar, SL**

En relación con el expediente arriba indicado, esta Confederación Hidrográfica del Cantábrico, a propuesta de la Agencia Vasca del Agua, dicta la siguiente resolución:

**I.- ANTECEDENTES DE HECHO**

1º.- Con fecha 17/04/2024, Ingemar, SL presentó en la Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales de la citada Agencia Vasca del Agua, solicitud de autorización de obras para el derribo de las antiguas insalaciones de la empresa en zona de policía de la magen derecha del río Oria, en la calle Arraneka del término municipal de Usurbil (Gipuzkoa), acompañada de la preceptiva documentación.

2º.- El 18/04/2024 se remitió comunicación de inicio de expediente al peticionario acusando recibo de la solicitud.

3º.- Se comunica la petición al Ayuntamiento de Usurbil, a los efectos del posible otorgamiento de la correspondiente licencia de obras.

4º.- Se comunica la petición a la Dirección de Administración Ambiental del Dpto. de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

5º.- La Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales de la Agencia Vasca del Agua, en fecha 23/05/2024, emite informe técnico, previa visita de confrontación al terreno, siendo favorable a la autorización solicitada.

6º. - Con fecha 24/05/2024 tiene entrada en esta Confederación Hidrográfica del Cantábrico la Propuesta de Resolución formulada por la Agencia Vasca del Agua.

7º.- Consta en el expediente informe favorable de esta Confederación Hidrográfica en el que se indica que las obras consisten fundamentalmente en el derribo completo de las antiguas instalaciones de Ingemar, dedicadas a tallado y acabado de la piedra, principalmente de granito, en la calle Arraneka de Usurbil, todo ello emplazado en la zona de policía de cauces de la margen derecha del río Oria. La autorización también se tramita para obtener la licencia municipal para el derribo.

Se precederá a la demolición completa y retirada de todos los elementos demolidos con gestor autorizado, en una primera fase de toda la estructura

metálica de cubiertas, cerramientos y estructura metálica de pilares, vigas y cerchas con correas, y en segunda fase de la parte de estructura y forjados de hormigón armado, hasta cota cero para evitar riesgo a las personas, sin proceder a la demolición de la cimentación de la estructura metálica y solera que han tenido un proceso de descontaminación.




Las actuaciones propuestas se localizan en la zona de policía del cauce del río Oria, que en esta área drena una cuenca vertiente de S10,34 $km^2$ de superficie.

Según propuesta suscrita el 23/05/2024 por el Director de Gestión del Dominio Público de la Agencia Vasca del Agua la zona de actuación se encuentra afectada por las inundaciones estimadas para periodos de retorno de 100 y 500 años y fuera de la zona de flujo preferente. No obstante, con los trabajos de demolición a ejecutar se elimina un obstáculo para el flujo del agua, por lo que se considera que no se agrava la situación de inundabilidad existente en el entorno, ni se prevé que se incremente significativamente el nivel de la lámina de agua.

Consta, asimismo, declaración responsable por riesgo de inundación, firmada por el promotor en fecha 29/04/2024, en la que expresa que conoce y asume el riesgo existente y las medidas de protección civil aplicables al caso, comprometiéndose a trasladar esa información a las posibles personas o entidades afectadas.

El ámbito de actuación se localiza dentro del Área con Riesgo Potencial Significativo de Inundación de ES017-GIP-16-1 USURBIL, siendo las obras compatibles con el Plan de Gestión del Riesgo de Inundación (PGRI) de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental.

**I.- FUNDAMENTOS DE DERECHO**

A).- DE ORDEN JURÍDICO-FORMAL

1º. - Por Convenio de 18 de abril de 2024 entre el Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico, las Confederaciones Hidrográficas del Cantábrico, O.A. y del Ebro, O.A. y la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua, se

encomiendan diversas actividades en materia de dominio público hidráulico en las cuencas intercomunitarias del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de conformidad con la facultad que se recoge en el artículo 17 d) de la Ley de Aguas (Texto Refundido aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio; BOE de 24 de julio), y en el artículo 53 y concordantes del Real Decreto 849/1986, de 11 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Dominio Público Hidráulico y sus posteriores modificaciones.

2º. - De conformidad con lo dispuesto en el artículo 30 de la citada Ley de Aguas, en relación con el artículo 33 del Real Decreto 927/1988, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Administración Pública del Agua y de la Planificación Hidrológica, le corresponde a la Presidencia del Organismo de Cuenca Confederación Hidrográfica del Cantábrico, O.A. dictar la presente resolución.

B). - DE ORDEN JURIDICO-MATERIAL

1º.- La autorización de obras solicitada comporta la utilización de la zona de policía de cauces del río Oria, vertiente a la cuenca interautonómica del mismo río, en la forma prevenida en los artículos 9, 52 a 54, 78 y concordantes del citado Reglamento del Dominio Público Hidráulico y por el Real Decreto 35/2023 de 24 de enero, por el que se aprueba la revisión de los Planes Hidrológicos de las Demarcaciones Hidrográficas del Cantábrico Occidental, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura y Júcar, y de la parte española de las Demarcaciones Hidrográficas del Cantábrico Oriental, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana y Ebro, (BOE de 10 de febrero).

2º. - En la presente petición concurren los presupuestos y requisitos contenidos en los preceptos normativos citados, por lo que teniendo en cuenta el interés público y los criterios contenidos en la propuesta emitida, procede otorgar la autorización solicitada.

De acuerdo con los fundamentos de hecho y de derecho precedentes y vistas las disposiciones normativas citadas, y las demás de general y especial aplicación, **se resuelve lo siguiente:**

Autorizar a **Ingemar, SL**, con N.I.F./C.I.F. nº. B 20S59997, la ejecución de las obras de derribo de las antiguas insalaciones de la empresa en zona de policía de la magen derecha del río Oria, en la calle Arraneka del término municipal de Usurbil (Gipuzkoa), que se corresponde con los siguientes datos de situación:

- DEMARCACIÓN: Cantábrico Oriental

- SISTEMA DE EXPLOTACIÓN: Oria

- CÓDIGO Y NOMBRE DE LA MASA SUPERFICIAL: ES028MAR002662 - Río Oria VI

- NOMBRE DE LA CORRIENTE AFECTADA: Río Oria

- CÓDIGO DEL RIO: 1/0400

- MARGEN: derecha

- COORDENADAS U.T.M: X = 576.769 Y = 4.791.004 Z = 12

- TÉRMINO MUNICIPAL Y PROVINCIA: Usurbil (Gipuzkoa)

La autorización queda condicionada al cumplimiento de las condiciones exigidas para las de su naturaleza por la Ley de Aguas, las disposiciones que la desarrollan y demás de general aplicación y, en particular de las siguientes:

**DE CARÁCTER GENERAL**

1ª.- La presente autorización no implica la cesión del dominio público ni de las facultades dominicales del Estado y se otorga con sujeción a lo dispuesto en el Texto Refundido de la Ley de Aguas y en el Reglamento del Dominio Público Hidráulico, dejando a salvo los derechos particulares y sin perjuicio de tercero, con la obligación de ejecutar las obras necesarias para conservar o sustituir las servidumbres existentes.

2ª.- La Administración Hidráulica conservará en todo momento las facultades de tutela y policía sobre el dominio público hidráulico y sus zonas de servidumbre y policía, quedando obligado el titular de la autorización a informar a este Organismo de cuenca de la terminación de las actuaciones a los efectos procedentes y de las incidencias que se produzcan, así como a cumplir las instrucciones que dicte éste.

3ª.- El otorgamiento de esta autorización no exime a su titular de obtener otros permisos o autorizaciones que pudieran ser necesarios para la ejecución de las obras o el ejercicio de la actividad.

4ª.- Podrá ser revocada esta autorización por incumplimiento de cualquiera de las condiciones y en los casos previstos en las Leyes, declarándose la revocación por resolución motivada de la Administración Hidráulica. El incumplimiento podrá dar lugar, si procede, a la incoación del correspondiente expediente sancionador de acuerdo con lo establecido en el artículo 116.3 c) del Real Decreto Legislativo 1/2001 por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Aguas.

5ª.- Las actuaciones autorizadas se ejecutarán de acuerdo con los documentos presentados que obran en el expediente, con las modificaciones que resultan de las condiciones de la autorización. Toda modificación de las características de la presente autorización requerirá aprobación administrativa previa.

6ª.- Debe evitarse todo enturbiamiento de las aguas del río durante la actuación, no debiendo arrojarse al mismo los materiales de desecho, ni depositarlos en sus márgenes, dejando expedita la zona de servidumbre de uso público, esto último sin perjuicio de que en el condicionado particular se autoricen depósitos temporales, u ocupaciones de la zona de servidumbre. Al finalizar la actividad, incluso en caso de finalización anticipada, deberá dejarse al cauce en condiciones ambientales y de desagüe adecuadas, pudiendo el Organismo de cuenca adoptar las medidas necesarias para el cumplimiento de esta obligación.

7ª.- El titular de la autorización será responsable de los daños y perjuicios que

puedan causar las actuaciones autorizadas, quedando obligado a conservar y mantener en su caso las obras realizadas, y siendo asimismo responsable de las consecuencias que de la mala ejecución de las mismas se pudieran derivar.

8ª.- Esta autorización puede generar la obligación de pago del canon de ocupación y aprovechamiento del dominio público hidráulico establecido en el artículo 112 del texto Refundido de la Ley de Aguas, que será fijado, en su caso, en las condiciones particulares.

9ª.- Esta autorización estará sujeta al límite temporal que se determine en las condiciones particulares, trascurrido el cual carecerá de vigencia. El interesado podrá solicitar prórroga de la misma antes de su finalización, motivando la petición. Esta prórroga podrá otorgarse por un periodo nunca superior al inicial, teniendo en cuenta que el plazo máximo de vigencia, incluidas las prórrogas será de cuatro años. Cualquier actuación que se pretenda una vez transcurrido el plazo de la autorización, o el de sus prórrogas, exigirá la tramitación de una nueva solicitud.

10ª.- Este título no amparará la ocupación, utilización o aprovechamiento del dominio público hidráulico por un periodo superior a setenta y cinco años, pudiendo las condiciones particulares establecer otro inferior.

**DE CARÁCTER PARTICULAR**

1ª.- Las obras se ajustarán a la documentación presentada, en tanto no sean modificadas por las condiciones de la autorización.

2ª.- Se mantendrán las franjas de servidumbre de 5 metros del cauce en estado natural y libres, balizándolas con cinta señalizadora, para impedir el trasiego de vehículos, acopio de materiales o rellenos, casetas o recipientes, cierres, arquetas, etc. en dicha zona, sean provisionales o definitivas.

3ª.- Las obras deberán estar finalizadas en el plazo de 24 MESES, contados a partir de la notificación de la resolución, notificando por escrito la terminación de las mismas para realizar el acta de reconocimiento final, si procede. Si las obras no se llevaran a cabo dentro de dicho periodo se podrá solicitar una prórroga antes de la finalización del plazo otorgado, indicando los motivos por los que no se han podido realizar las obras, las actuaciones que restan y el plazo estimado de finalización de las mismas.

4ª.- Se respetará la vegetación natural existente en las márgenes y una vez finalizadas las obras se llevará a cabo la revegetación de las zonas afectadas con vegetación autóctona de ribera.

5ª.- Durante las obras no se acopiarán en las zonas inundables materiales o residuos que puedan ocasionar una reducción significativa de la sección de desagüe, provocar la contaminación o degradación del dominio público hidráulico o flotar o ser arrastrados provocando la obstrucción de obras de drenaje y puentes.

6ª.- La Administración Hidráulica no se hace responsable de los daños que puedan producirse en las instalaciones auxiliares u obras que se autorizan, como

consecuencia de avenidas extraordinarias producidas por causas naturales, al ubicarse en zona inundable.

7ª.- Con motivo de las obras no se permitirá ningún tipo de vertido, escombros, restos de obra, etc. al río o zona de ribera, debiendo gestionar los materiales sobrantes mediante gestor autorizado.

8ª.- Se avisará telefónicamente al personal de inspección de aguas de la Agencia Vasca del Agua (tel.: 945 011 700) previo al comienzo de las obras.

9ª.- Al amparo de la presente autorización no podrán efectuarse la captación de aguas del cauce, ni el vertido de residuales al mismo, ni el aprovechamiento de los bienes situados en los cauces, sin la previa autorización administrativa

**Contra la presente resolución, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Presidenta de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia de Asturias. Los plazos de interposición de ambos recursos serán, respectivamente, de UN MES y DOS MESES a contar desde el día siguiente de la notificación de la resolución.**

LA PRESIDENTA
P.D. LA COMISARIA DE AGUAS (Resolución de 13/09/2017, B.O.E. de 09/10/2017)
Ana María Arenas López
(Firmado electrónicamente 31-05-2024)

EUSKAL TRENBIDE SAREAREN EBAZPENA

Euskal Trenbide Sareak obrak baimenduz honako ebazpena eman du 2024ko ekainaren 7an:

**GAIA: USURBILGO (GIPUZKOA) INGEMAR NABEAK ERAISTEA (ESTALKIAK, ITXITURAK, METALEZKO EGITURA ETA 0 KOTAN DAUDEN ELEMENTUAK)**

**ESKATZAILEA**: GRUPO INGEMAR, S.L.
**IFK** : B-20859997
**REPRESENTANTE**: ARCAYA SOLAR, S.L.
**CIF**: B-01428325

**K.P**.: 97/970 – 98/200
**LINEA**: BILBAO-DONOSTI

**ONDARE ESP. ZKm: 43-2024**

**EBAZPENA**

EUSKAL TRENBIDE SAREA – RED FERROVIARIA VASCA (aurrerantzean, ETS) erakunde publikoari 2024ko apirilaren 16an (387 sarrera-zenbakia) **Usurbilgo udalerrian, Bilbao-Donostia lineako 97/970 eta 98/200 KPen inguruko trenbide-babeseko eremuan, INGEMARen nabeak (estalkiak, itxiturak, metalezko egitura eta 0 kotan kokatutako elementuak) eraisteko aurkeztutako eskaera aztertu da**, Ente honek ALDEKO EBAZPENA EMATEN DU lan horiek egiteko, baina baldintza hauek jartzen ditu lan horiek egiteko: eskatzaileari ezarritako baldintza guztiak betetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planean (Eusko Jaurlaritzaren 41/2001 Dekretuaren bidez onartu zen), abenduaren 19ko 26/2022 Legean (Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legea aldatzen duena) eta abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako erregelamenduan, arlo horretan indarrean dauden edo gerora promulga daitezkeen gainerako xedapenetan eta baldintza berezi eta orokor hauetan ezarritakoaren arabera:

**BALDINTZA BEREZIAK**

**1.- <u>Baimenaren gora-beherak</u>**

**1.1.-** Baimendutako lanen egoera eta ezaugarriak, Eskatzaileak, adierazitako datan, aurkeztu duen dokumentazio honetan adierazitakora egokituko dira:

2024ko apirilaren 16a→ Usurbilgo (Gipuzkoa) Aranakarreka kalean granitoa eta marmola fabrikatzeko Ingemar pabiloien industria- aurria eraisteko proiektua, Fernando López de Arechavaleta Aguayo nekazaritzako ingeniari teknikoak idatzia. Eskabide honekin batera doa proiektua, eta haren parte da.

**1.2.-** Trenbidearen Jabari edo Babesgunean baimendutako obren gainean geroago ezarri nahi den edozein aldaketa egiteko, dagokion baimena beharko da, eta horretarako eskatzaileak eskatu beharko dio, trenbide azpiegituraren administratzaileari.

**2.- <u>Epeak</u>**

**2.1.-** Baimen honek biltzen dituen lanak burutzeko epea, Trenbidearen Jabariari dagokionean, ez da **HOGEITA LAU HILABETE** baino gehiagokoa izango, baimena ematen den egunetik aurrera, eta, epe hori igaro ondoren lanak amaitu gabe egongo balira, baimena baliagabeturik geratuko litzateke.

**2.2.-** Eskatutako obrak hasi aurretik, Eskatzaileak ***ETS***ri hasiera data jakinaraziko dio, bai eta aurreikusitako burutzapen epea ere, mezu elektronikoa bidaliz helbide hauetara: ondarea@ets-rfv.eus

**3.- <u>Bermea / Fiantza</u>**

**3.1.-** Eskatzaileak edo bere izenean ari denak baimendutako lanen ondorioz, ETSen instalazioetan gerta litezkeen matxura edota akatsen erantzukizuna izango du.

Hori dela-eta, lanak egiteko baimena jasotzerakoan, Eskatzaileak erantzukizun zibileko aseguru poliza emango du, aipatutako ezbeharrak beteko duena; emandako polizak frankizia bat edukiz gero, Eskatzaileak berak edo bere izenean

ari denak frankiziaren zenbatekoari erantzun beharko dio.

**3.2.-** Tren Sektoreari buruzko legearen Araudiaren 31.3 artikuluarekin bat etorriz, edozein ebazpen ematean, ebazpena jasotzen duenak, ebazpen horrek dakartzan azterketa, izapidetze eta jarraipen gastuak ordaindu beharko dizkioi trenbide azpiegituren administratzaileari.
Hori dela eta, Eskatzailearen kontura izango dira ebazpen honen ondorioz sor daitezkeen eta ETSko langileen esku-hartzea eragiten duten gastu guztiak, zuzenak edo kanpoko teknikari bat izendatuz horretarako, edo haren jabetzetan edo instalazioetan izandako eraginak. Horretarako, eskatzaileak, edo bestela obraren esleipena duen kontratistak, **HAMABOST MILA EUROKO (15.000 €) fiantza ezarriko du**, ETSko Zerbitzu Ekonomikoetan, lanak hasi aurretik, eta haiek amaitzen direnean kitatuko da.

Aldez Ebaztutako lanen sustatzailea Erakunde edo Administrazio Publikoa bada, eta deskribatu diren erantzukizunak behar bezala bermatzeko xedez, aipatutako fiantza ETSren alde eratzea eskatu beharko dio esleipena lortu duen enpresari.

Fiantzaren aurkezpena, ondoren adierazten den prozedura hauetako edozein erabiliz egin ahal izango da:

- Banku transferentzia ES88 0049 1800 1723 1063 9827, zenbakiko kontu korrontera, kontzeptuan, Baimen honi dagokion ondare espedientearen 43-2024 zenbakia adieraziz.

- Bankuko abalaren aurkezpena. Bertan, Baimen honi dagokion ondare espedientearen 43-2024 zenbakia egon beharko da adierazita, eta baita baimendutako lanen deskribapen laburra rere. Ez du mugaegunik izango, eta lerroalde hau jasoko du: “Abal honek indarrean jarraituko du EUSKAL TRENBIDE SAREA – RED FERROVIARIA VASCAk edo bere izenean, legez, horretarako gaitasuna jasotzen duenak, bere baliogabetzea edo itzulketa baimentzen duen arte, emandako baimenetik sortutako gastu guztiak, zuzenak edo zeharkakoak, bete direla egiaztatu ondoren”.

**4.-<u>Lanak egitea</u>**

**4.1.-** Aurkeztutako proiektuaren memoriaren arabera, lehenengo fasean metalezko egitura, estalkia eta metalezko itxiturak eta zati bat hormigoi-blokearekin dituzten industria- instalazioak eraitsiko dira. (0 kotarainoko elementu guztiak eraitsiko dira).

**4.2.-** Bilbao-Donostia lineako 98/000 KParen inguruan, PB11 nabea (Carl-Meyer granito- leungailuaren pabiloia) eta DP01 (1. araztegia) daude. Instalazio horiek tren-azpiegituratik gertu daudenez, bitarteko mekanikoen bidez eraitsi ahal izateko, eta lur-berdinketaren kanpoko ertzetik 8 metro baino gutxiagora, ETSk homologatutako segurtasun-pilotu bat egon beharko da.

**4.3.-** Eraitsi beharreko instalazioetara Olarriondo kaleko biribilgunetik sartzen da, Aranerrekara.

Sarbide hori Usurbilgo geltokia eguneratzeko proiektuaren obren eraginpean dago, eta, beraz, edozein jarduketa egin aurretik, ETSk kudeatutako obren

arduradun teknikoekin harremanetan jarri beharko da.

**Obra-plangintza bat entregatu beharko da, eta lanak koordinatuko dira, eraispen- obretatik datozen kamioien joan-etorriak ez dezan eragotzi geltoki berria egitea.**

**BALDINTZA OROKORRAK**

**1.-** ***ETS***-tik kanpo egindako edozein motatako obra edo lan, une oro **trenbidearen funtzionaltasunari** eutsiz egingo da.

**2.-** Eskatzaileak edo haren izenean aritzen denak, **ETSeko Segurtasun Arautegia** derrigorrez bete beharko du baita Trenbideko teknikariek egiten dizkioten oharrak jarraitu ere, tren instalazioei eta ustiapenari dagokienean.

**3.-** ***ETS***-k, zuzenean edo ondore horietarako kanpoko teknikaria izendatuz, sarbide librea izango du baimendutako obretara edo lanetara, baimen honetan ezartzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu ahal izateko.

**4.-** Obran une oro egongo da eskura ***ETS***-ko Zirkulazioko Aginte Postura deitzeko telefono zenbakia (Bizkaia 944.019.801 / Gipuzkoa 943.013.532), trenbideko zirkulazioan eragina izan dezakeen edozer berehala jakinarazteko.

**5.-** Lanak ***ETS*ek Homologaturiko Seguritate Piloto** bat etengabe aurrean egonik burutuko dira, gertueneko bidetik 3 m baino gutxiagora egiten badira, edota 8 m baino gutxiagora, makineria astuna erabiliz gero (garabiak, hondeamakinak, etabar.)
**6.-** Baimendutako lanen baten ondorioz Trenaren zirkulazioan edo ustiapenean nolabaiteko arriskurik sortu ahal izango balitz, ***ETS***eko langile eskudunei jakinarazi beharko litzaieke garaiz, behar diren neurriak hartu ahal izan daitezen. ***ETS***ek ofizioz ezarri ahal izango du neurri horiek hartzeko derrigortasuna.

**7.-** Lanak beharrezkoak diren sendotasuna eta irmotasuna izango ditu, trenen zirkulazioak sortzen dituen dardaren ondorioz akatsik gerta ez dadin eta gertatzeko arriskurik edo beldurrik egon ez dadin, eta Eskatzailea izango da eraikuntzaren segurtasunaren eta Trenak edo haren erabiltzaileek jaso ditzaketen kalteen arduradun bakarra.

**8.- Lanak egiteko behar diren materialen metaketak ezin izango dira Trenaren lursailetik ZORTZI (8) METRO baino gutxiagora egin (kanpoko errailetik) eta sukoiak balira, HOGEITA BOST (25) METRO baino gutxiagora.**

**Era berean, obrek dirauten bitartean garabiak instalatu behar badira, trenbidearen kanpoko bertikaletik 8 metro baino gutxiagora zintzilik dauden kargak ekortzea saihesteko moduan instalatuko dira.**

**9.-** Ezein kasutan (lurren higiduragatik edo beste edozein arrazoigatik) ezin izango da Trenaren lurretara eraman ezta bertan utzi uraren ibilbidea, ezta lur horietatik datorren uraren ibilbideari oztopoak jarri ere.

**10.-** ***ETS***-en eraginpeko eremuan, obrari dagokoin edozein zuinketa edota mugaketa burutu ahal izateko, haren buruketaren arduraduna ados jarri beharko

da Trenbideko teknikariekin, aurretik jakinaraziz.

**11.-** Lanak burutu bitartean, eta ***ETS***eko teknikarien iritziz, babeserako neurriak eskasak izateagatik, ***ETS***eko instalazioek eragina jasateko arriskua egonez gero, **lanak geldiaraziteko arrazoi nahikoa egongo litzateke, harik eta babeserako neurriei dagokienez, hutsuneak zuzendu arte.**

**TRENBIDEAREN INSTALAZIO ETA/EDO USTIAPENAREN GAINEKO ERAGINA:**

**12.-** Baimendutako lanaren ondorioz Treneko ondasunetan edo instalazioetan kalteak edo matxurak gertatuko balira, Eskatzaileak berehala konpondu beharko lituzke. Treneko arduradunen iritziz premiak edota konponketaren berezitasunak horretara behartuko balu, Trenak konponduko lituzke, Eskatzailearen kontura.

Eskatzaileak, lehenengo kasuan, konponketa egitera behartuta dago, eta, bigarren kasuan, ***ETS***ek luzatzen dion dagokion faktura ordaintzera.

**13.-** Halaber, baimendutako lanen ondorioz, ***ETS***eko teknikarien iritziz, trenbidearen instalazioren bat aldi baterako edo era iraunkorrean aldatu beharko balitz, hala egingo litzateke. Kasu horietan Eskatzaileraren esku geratuko lirateke aldaketen ondorioz sortutako gastu guztiak.

**14.-** ***ETS***eko instalazioetan burutu beharreko lanak, azken hiru urteotan, ***ETS***eko instalazioetan antzeko lanak egin dituzten enpresek bakarrik burutuko dituzte. Halaber, ***ETS***ek bere on eritzia eman behar izango du.

Bestalde, lanetan erabiliko diren materialek ***ETS***ek honidurarako dituen ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte.

**15.-** Lanak burutu bitartean, **trenbide trafikoa eten behar izanez gero, garraiorako ordezko zerbitzua ezarriko da** (***ETS***eko Zuzendaritza erabakiko du edozer gertatu ere). Ordezko zerbitzuaren ondoriozko gastu guztiak, baliabide materialak zein giza baliabideak, bezeroei zuzendutako informazioa, diru-sarrera gutxitu, e.a., Eskatzailearen kontura izango dira.

**LANAK BUKATZEA:**

**16.-** Baimendutako lanak behin amaituta, eskatzaileak ***ETS***ri lanak amaitu direla jakinaraziko dio. Horretarako, Lanen amaierako egiaztagiria aurkeztu beharko du.

**17.- Aldi berean, Eskatzaileak *ETS*eri burututako benetako lanaren azken planoak (as bulit) eman beharko dio, eskariarekin batera aurkezturiko Proiektuaren planoetan edozelako aldaketarik gertatu izan balitz.**

**ERANTZUKIZUNAK:**

**18.-** Egiten diren lanetatik ***ETS***ek ez du inolako zortasunik hartuko. Izan ere, Eskatzailea edo honen betekizunen ordezkaria izango da lanak burutzen diren artean hauen mantentze eta segurtasun baldintzak bete daitezelaren arduraduna.

**19.-** ***ETS***ek ez du inolako erantzukizunik izango etorkizunean, trenbidearen

zortasun gunean egin ahal izango diren jardueren edo lanen ezta gainontzekoek egindako edozein jardueraren ondorioz, trenbidearen ohiko ustiapena dela eta, baimena jaso duen instalazioak jasan ditzakeen kalteetan edo matxuretan.

**INGURUGIRO MAILAKO BETEBEHARRAK ERAIKIN BERRIEN KASUAN:**

**20.-** Eskatzaileak Euskal Herriko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 37. artikulua (1998ko martxoaren 27ko EHAA, 59. zk.) bete beharko du, baita azaroaren 17ko Zarataren 37/2003 Legea (2003ko azaroaren 18ko EHAA, 276. zk.) ere, hala nola gai honen inguruan indarrean dauden udal ordenantzak. Horretarako, trenbidearen kokapena hartuko da kontuan, honek sorrarazten dituen zaraten eta bibrazioen eragina aztertzeko.

Horretan oinarrituz, baimendutako eraikinean, aire-poluzioaren prebentziorako neurri egoki guztiak aplikatuko dira, bai eraikinaren egituran, bai fatxada eta leihoetan, **zertarako eta zaraten eta bibrazioen eragina minimizatzeko, eta horrela, aplikagarriak diren kalitate akustikoaren helburuak beteko dira.**

Horrela, obren sustatzaileak, hasiera batean, Udalarekin harremanetan jarri beharko du, 213/2012 Dekretuaren (Eragin akustikoari buruzko azterlana) ondoriozko betebehar akustikoak betetzeko. Araudi horretan, obrei zuzenean aplikatzen zaizkie Trenbidearen Zortasun Akustikoko gunearen ondorioei (30. art.) eta etorkizuneko hirigintza-garapenari (36.-43. artikuluak) buruzko artikuluak.

<u>**LEGE OHARTARAZPENAK**</u>

**1.-** Abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuak onartzen duen Trenbide arloko Araudiaren 32. aplikatuz, ETS-k, edozein unetan, emandako baimena aldi baterako edo behin betiko indarrik gabe utzi ahal izango du, eta horrek ez du inolako kalte-ordainetarako eskubiderik sortuko, kasu hauetan:

a) Ondoren onesten diren segurtasun arauekin bateraezina balitz.
b) Herri jabarian kalteak eragingo balitu.
c) Jabari publikoa guztien intereseko jarduerateako erabiltzea ezintzekoa bilatuko balu.
d) Trenbide azpiegiturak hedatzeko, hobetzeko edo garatzeko beharrezkoa balitz.

**2.-** Baimen hau gainontzekoei kalterik sortu gabe ematen da, jabetza eskubidea kaltetu gabe eta indarrean dauden edo aurrerantzean indarrean egon daitezkeen xedapenei eutsiz, eta baldintzok ez dute inolako menpekotasunik gai honen gainean beste erakunde batek eman ditzakeen baldintzekin.

**3.-** Baimen hau jasotzen duen instalazioa, baimena ematen den helbururako bakarrik bideratuko da, eta Eskatzaileak bakarrik erabili ahal izango du. Eskatzaileak ezin izango dio erabilera beste inori eman, dohainik bada ere.

**4.-** Baimen hau indarrik gabe gera daiteke berarekin batera ezartzen den baldintzaren bat betetzen ez bada.

**5.-** Eskatzaileak, baimena zein lanak burutzeko baimendutako planoak ETS ko langileei erakutsi beharko dizkie, hala eskatuz gero. Honek, agindu hauek bere osotasunean edo zati batean betetzen diren egiaztatzeko balioko du.

**6.-** Eskatzaileak ez baditu betetzen baimen honetan ezartzen diren betebeharrak, Trenbideetako Poliziari buruzko arauak hausteagatiko zehapen espedientea irekitzea eragingo du, hortik sor daitezkeen mota guztietako erantzukizunekin, eta hori guztia, Trenbide Sektoreko Legearen 18. artikuluan, berau garatzen duen Araudiaren 37. artikuluan xedatutakoari dagokionez, ezarritakoa betez.

**7.-** Baimen hau ez da eraginkorra izango, fidantzari buruzko eta egon daitezkeen gainerako gastuen baldintza ekonomikoak betetzen ez diren arte. Baldintza ekonomiko horiek ETSeko Finantza Baliabideetako Sailean erregularizatu beharko dira, eskaturiko lanak hasi aurretik.

Bilbon, 2024ko maiatzaren 8a

Sta./Fdo.- ERNESTO MARTINEZ DE CABREDO ARRIETA
ZUZENDARI NAGUSIA
(2024-06-07)

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2024ko ekainaren 13an honako txostena eman du:

**27_2024OHAN005**

**BULEGO TEKNIKOA**
**Udal Teknikariak Alkate andreari**
**OBRA HANDIAK**
**INGEMARREK HARRIA LANTZEKO ETA AKABERA EMATEKO ERABILTZEN ZITUEN INSTALAZIO ZAHARRAK OSORIK ERAISTEKO BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA**

ESKATZAILEA: Grupo Ingemar SL

ORDEZKARIA: Mª Aranzazu Fernández García
ESKAERA: Ingemarrek harria lantzeko eta akabera emateko erabiltzen zituen instalazio zaharrak osorik eraisteko baimena
ESKAERA DATA: 2024-03-18
KOKAPENA: Aranerreka kalea, Usurbil
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2024-OHAN-005
AURREKONTUA (PEM): 112.650,17 euro

HONDAKINEN KUDEAKETA (PEM): 10.242,42 € FIDANTZA (%120): 12.290,9 €

2024ko ekainaren 11n, Fernando Lopez de Arechavaleta Aguayo jaunak, Arcaya Solar, SL enpresaren izenean dokumentazio osagarria aurkeztu du.

**AURREKARIAK**

2024ko martxoaren 18an, Mª Aranzazu Fernández Garcíak, Grupo Ingemar SL enpresaren izenean, Ingemarrek harria lantzeko eta akabera emateko erabiltzen

zituen instalazio zaharrak osorik eraisteko baimena eskatu zuen.

2024ko apirilaren 17an Ur Agentziak idatzia aurkeztu zuen eraisketa lanak baimentzeko eskaera jaso dutela jakinaraziz.

2024ko apirilaren 26an udal arkitektoak honako hau adierazi zuen txostenean:

> *(...) baimen eskaera ontzat eman aurretik URAren eta ETS-ren baimenak eskuratu beharko dira*

**TXOSTENA**

Aurrekarietan esan bezala, eskaera orriarekin batera interesdunak dokumentazio osagarria aurkeztu du, Ur Agentziaren eta ETS-ren baimenak, hain zuzen ere.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, esan daiteke behean izenpetzen duen teknikariak apirilaren 26ko txostenean eskatutako dokumentazioa aurkeztu dela, eta ontzat ematen da.

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 10.242,42 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batera (12.290,9 euro). Fidantza itzultzeko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuta (112/2012 Dekretuaren 6. artikuluari jarraiki). Oro har, bete beharko dira RD 105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**ONDORIOA**

Goian esandakoa kontuan izanik, Ingemarrek harria lantzeko eta akabera emateko erabiltzen zituen instalazio zaharrak osorik ERAISTEKO BAIMENA ematea proposatzen da honako baldintza hauekin:

**LEHENA:** Eraisketa +0 kotarainokoa izango da soilik, inolaz ere ezingo da zimenduei dagokien eraisketa egikaritu.

**BIGARRENA:** Eraisketa hasi baino lehen hondakinen kudeaketari dagokion fidantza jarri beharko da (12.290,9 euro).

**HIRUGARRENA:** URA agentziak eta ETS-k ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Hori da behean sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste batzuen kaltetan izan gabe. Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinaduraren datan.
Udal arkitektoa

Gauzak horrela, udal teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI***:* GRUPO INGEMAR, S.L. (IFK: B20859997) enpresari, Ingemarrek harria lantzeko eta akabera emateko erabiltzen zituen instalazio zaharrak eraisteko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Eraisketa +0 kotarainokoa izango da soilik, inolaz ere ezingo da zimenduei dagokien eraisketa egikaritu.

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean**:

  Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 10.242,42 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (12.290,90 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

  **12.290,90 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: 2024-OHAN-0005"* jarriaz kontzeptuan.

- URA agentziak, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta ETS-k ezarritako baldintzak bete beharko dira.

**BIGARRENA***:* Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

**4.- CONSTRUCCIONES ABURUZA SL ENPRESAK HAASETAKO S-6 (AGERREAZPI) SEKTOREKO BEP 3.5 ETA BEP 3.6 PARTZELAN 24 ETXEBIZITZA ETA GARAJEAK ERAIKITZEKO OBRA BAIMENAREN EPEAK LUZATZEKO ESKAERA ONARTZEA (2023OHAN0020).**

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko abenduaren 29an egindako ohiko bilkuran zera erabaki zuen: CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoreko BEP 3.5 eta BEP 3.6 partzelan 24 etxebizitza eta garajeak eraikitzeko udal baimena ematea.

EXEKUZIO PROIEKTUA ETA OBRA BAIMENAREN LUZAPENA

Orain berriz, CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoreko BEP 3.5 eta BEP 3.6 partzelan 24 etxebizitza eta garajeak eraikitzeko Exekuzio Proiektua eta Telekomunikazio Azpiegituren proiektua aurkezteaz gain, obrak burutzeko ezarritako gehienezko epea luzatzea eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitekoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2024ko ekainaren 18an aldeko txostena honako ondorioak jasoz:

> (...)
>
> **ONDORIOA**
>
> Goian esandakoa kontuan izanik, S-6 AGERREAZPI sektoreko BEP 3/5 eta 3/6 lursailetan 24 etxebizitza eta garajeak eraikitzeko Exekuzio Proiektuaren ALDEKO txostena idazten da eta honako hau proposatzen da:
>
> > **LEHENA:** Obraren egikaritze epea luzatzeko eskaera aintzat hartzea.
> >
> > **BIGARRENA:** 2023ko abenduaren 29an Tokiko Gobernu Batzordeak emandako obra baimenean finkatutako *obra egikaritzeko gehieneko epea* aldatu eta **20 hilabeteko** epe berria finkatzea.
>
> (...)

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu aho batez:

**E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI***:* CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoreko BEP 3.5 eta BEP 3.6 partzelan 24 etxebizitza eta garajeak eraikitzeko obra baimenaren epeak luzatzeko eskaera onartzea.

**BIGARRENA***:* Obra baimenaren epe berriak ezartzea:

- Obra hasteko epe gehiengoa: 8 hilabete
- Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete
- Obraren egikaritza epe gehiengoa: 20 hilabete

**HIRUGARRENA***:* Gainontzekoan Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko abenduaren 29an emandako baimenean ezarritako baldintzak beteko dira.

**LAUGARRENA***:* Erabaki honen berri interesatuari emango zaio.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**